



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko uztailaren 23a

77. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, etxebizitza hutsen errolda egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Malerrekako eskualdeko osasun-zerbitzuaren berrantolamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, “Iruñerriko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana. v2 proposamenak” dokumentuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, ikasle behartsuak foru erkidegoaren funts publikoekin ordaintzen diren ikastetxe guztien artean banatzeko prozedura berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak zergatik ez duen hasieratik bertatik baliatu Nafarroak Covid-19rako PCR probak egiteko zeukan ahalmen guztia. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, pandemia eta osasun-krisi honetan sektore publikoak eta pribatuak duten lankidetzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko egin diren PCR probei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Covid-19aren pandemian ZIUko gehieneko ahalmena edukitzeko egindako ekintzei eta gaixoak maneiatzeko protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Kontuen Ganberaren informazioaren segurtasunari buruzko politika (9. or.).
- Erabakia, zeinaren bidez uztaila gaitzen baita bilera urgenteak egiteko (20. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, etxebizitza hutsen errolda egiteari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, etxebizitza hutsen errolda egiteari buruzkoa. Galdera 2020ko martxoaren 13ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Errok 20PES-00053 zenbakiko galdera egin du, idatziz erantzutekoa. Honen bidez, Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariak honako hau jakinarazten dizu:

Etxebizitza Hutsen Erregistroa prestatzeko lanari bi pertsona atxiki zaizkio: Programen Heda-penerako eta Ikuskapenerako Zerbitzuko burua, lanaldi partzialean, eta Ikuskapen Ataleko burua. Aurreikusi da hemendik gutxira Administrazio Publikoko teknikari bat (arlo juridikoa) eta bi administralari ere sartzea zerbitzuan.

Gainera, erregistroa prestatzeko beharrezkoa da Lur-ondasunen eta Ondarearen gaineko Tribu-

tuen Zerbitzuaren, Tributuen arloko Informazio Sistemen Zerbitzuaren eta Departamentuetako Informazio Sistemen Zerbitzuaren lankidetzaz.

Nafarroako etxebizitzaren titularrei buruzko datuak Excel dokumentu batean jasotzen dira, eta bertan adierazten dira, baita ere, ur- eta argi-kontsumoak. Hogei etxebizitza edo gehiagoren titular diren pertsona fisiko edo juridikoen hautaketa bat egiten da, etxebizitza hutsak eta etxebizitza-educitzaile handiak bereizteko.

Era berean, beste Excel dokumentu bat sortzen da, Nafarroako hiru etxebizitza edo gehiagoren titularren datuekin, eta proiektu pilotuan aintzat hartutako udalerrietan daudenak hautatzen dira; hau da: Bera, Burlata, Cárcar, Corella, Altsasu, Arantza, Igantzi, Lesaka eta Etxalar.

Ezinezkoa da zenbatespen ekonomiko bat egitea, lanak Foru Administrazioaren beraren baliabideekin egiten baitira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 28an

Lurraldearen Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## **Galdera, Malerrekako eskualdeko osasun-zerbitzuaren berrantolamenduari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Malerrekako eskualdeko osasun-zerbitzuaren berrantolamenduari buruzkoa. Galdera 2020ko martxoaren 13ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (20PES-00048), zeinaren bidez informazioa eskatzen baitu Doneztebeko osasun zentroaren eskualdeko osasun-berrantolaketari buruz. Hona Nafarroako Gober-

nuko Osasuneko kontseilariak horri buruz helarazten duen informazioa:

Osasun Departamentuak Doneztebeko osasun zentroaren eskualdearen osasun-berrantolaketan lanean darrai, bere garaian zuzendaritza-taldeekin eta Tokiko Osasun Kontseiluarekin hitz egindakoren ildotik. Hala ere, COVID-19aren epidemiaren eragina dela-eta, antolamenduzko ezarpen zehatza eta denbora-esparrua normaltasun berrirako pixkanakako trantsizioaren eta kontingentzia-neurri eta beharrezko berregokitzapenaren testuinguru berrian kokatu behar dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

## **Galdera, “Iruñerriko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana. v2 proposamenak” dokumentuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Iruñerriko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana. v2 proposamenak” dokumentuari buruzkoa. Galdera 2020ko martxoaren 13ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera aurkeztu du (20PES-00051) “Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Plana. v2 proposamenak” doku-

mentua onesteari buruz. Horri erantzunez, Nafarroako Gobernuako Lurralde Kohesiorako kontseilariak informatzen du Planaren prestaketa prozesuaren jatorria dela Nafarroako Gobernuak, Iruñerriko Mankomunitateak eta eskualdeko hiri garraioaren zerbitzuari atxikitako 18 udalek 2016ko irailaren 22an sinatutako hitzarmena.

Aipatu hitzarmenaren 9. apartatuan esaten denez, Iruñerriko Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Plana udaletako osoko bilkurek onetsiko dute lehenbizi, Mankomunitateko osoko bilkurak ondoren eta Nafarroako Gobernuak azkenik. Testu horretatik ondorioztatzen denez, Plana sinatuko duen azken administrazioa Nafarroako Gobernuaren izan da. Esan behar da Barañaingo Udalak ez duela oraindik onetsi IHMIPa.

Nabarmendu behar dut gure ustez aipatu plana onetsi baino lehen aurrerapausoak eman behar direla hitzarmen bat adosteko eta bertan

argi adierazteko zer jarduketa egingen diren programaturiko fasean, nola ordainduko diren eta nor izanen den horien kudeaketaren arduraduna.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 27an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Bernardo Ciriza Pérez

---

## **Galdera, ikasle behartsuak foru erkidegoaren funts publikoekin ordaintzen diren ikastetxe guztien artean banatzeko prozedura berriari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ikasle behartsuak foru erkidegoaren funts publikoekin ordaintzen diren ikastetxe guztien artean banatzeko prozedura berriari buruzkoa. Galdera 2020ko martxoaren 13ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako Javier García Jiménez jaunak idatzizko galdera egin du (20PES-00046). Hona horri buruz erantzun beharrekoa:

Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 16ko 115/2019 Foru Aginduak hasiera ematen dio Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak

onartzeko oinarrizko alderdiak arautuko dituen foru dekretu bat egiteko prozedurari, Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntzarako eskubidea, berdintasun-baldintzetan sartzeko eskubidea eta gurasoek edo tutoreek ikastetxea hautatzeko askatasuna bermatze aldera.

Lortu nahi den helburu nagusia da egoera ahu-lean dauden ikasleen banaketa orekatuago bat egitea funts publikoen sostengua duten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe guztien artean. Helburu hori lortzeko, familiek ikastetxeak aukeratzeko duten eskubidea errespetatu behar da, eta egoera txarrean dauden pertsonei, taldeei eta lurralde-eremuei dagokienez, ekintza konpentsatzaileak ezartzeko betebeharra bete behar da. Une honetan, testua idazten ari da, eta izapidetzeko ezarritako prozeduraren mende jarriko da, foru dekretu berri honek arautu dezan 2020/2021 ikasturtean egingen den onarpen-prozesua.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 29an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

## **Galdera, jakiteko ea Osasun Departamentuak zergatik ez duen hasieratik bertatik baliatu Nafarroak Covid-19rako PCR probak egiteko zeukan ahalmen guztia.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea Osasun Departamentuak zergatik ez duen hasieratik bertatik baliatu Nafarroak Covid-19rako PCR probak egiteko zeukan ahalmen guztia. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu du (20PES-00065) jakiteko "Osasun Departamentuak zergatik ez duen hasieratik bertatik baliatu Nafarroak COVID-19rako PCR probak egiteko zeukan gaitasun potentzial guztia. Honako hau da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Foru Komunitatean PCRak eta beste test batzuk egitea epidemiaren bilakaeraren arabera gaurkotzen joan den estrategia bati eta lehentasun batzuei erantzuten die.

Alde batera utzita lehendabiziko etapa bat, zein laborategien eta material erabilgarrien gaita-

sunak baldintza mugatzaile bat izan baitziren, Nafarroak estrategia horren arabera egindako PCR proben kopuru bat artikulatu du, eta horren ondorioz, hainbat gorabehera izan ondoren, egindako proben guztizko kopurua handitu egin da, objektibo publikoak, kasuak eta halakoak egiten zaizkien pazienteen kopurua handituz, COVID horren detekzio goiztiarra hobetzeko eta indartzeko helburuarekin, sintomak dituztenen eta haien kontaktuen kasuan. Horretaz gainera, arrisku eta prebalentzia handiko kolektibo eta espazio jakin batzuk babestea helburu duten baheketak egin dira, Parlamentuan behin baino gehiagotan azaldu dugun bezala.

Maiatzaren 21eko datuen arabera, Nafarroa da 1.000 biztanleko PCR portzentaje handiena duen laugarren erkidegoa. Datozen egunetan beste urrats bat egingen da ildo horretan, eta horrek probak areagotzea ekarriko du, etengabe eguneratzen ari den ibilbide-orri baten arabera. Horrez gain, Osasun Ministerioko teknikariek positiboki baloratu dute kontaktuak arakatzeko sistema bat, deseskalatzearen faseetan aurrera egiteko prozesu partekatuan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

## Galdera, pandemia eta osasun-krisi honetan sektore publikoak eta pribatuak duten lankidetzari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, pandemia eta osasun-krisi honetan sektore publikoak eta pribatuak duten lankidetzari buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera egin du (20PES-00068), zeinean informazioa eskatzen baitu "COVID-19aren pandemian zehar zentro pribatuetara deribatutako gaixoei eta deribazio horien ezaugarri eta fakturazio-moduari buruz". Honako hau da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Martxoan eta apirilean O-NOZek zentro pribatuetara egindako deribazioak, COVID-19aren gaixoenak (maiatzean jada ez da bat bera ere deribatu), honako hauek dira:

	Gaixoak	Gaixoak ZIU	Gaixoak, ZIUtik kanpo
CUN	154	23	131
SMK	52	8	44
SJDO	147	0	147
	<b>353</b>	<b>31</b>	<b>321</b>

Horiei arreta emateko protokoloak, bai eta proba diagnostikoak, tratamendua eta ospitaleratze-irizpideak ere, bai solairuan, bai ZIUra sartzeko irizpideak berdinak izan dira ospitale guztietan, eta Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailearen eta Nafarroako Ospitaleguneko ZIUko zerbitzuburuaren aginte bakarrarekin koordinatu dira.

ZIUko batez besteko egonaldia 25 egunekoa izan da, eta ospitaleratzeen batez besteko egonaldia, berriz, 12 egunekoa, salbu San Juan de Dios Ospitaleko pazienteena, horien batez besteko egonaldia 20 egunekoa izan baita (San Juan de Dios Ospitaleak ez du ZIUrik).

2. O-NOZek Nafarroako Ospitaleguneko ZIUko edo ospitaleratze arrunteko egonaldiek izandako

kostu errealararen arabera ordainduko die zentro pribatuei.

Batez besteko kostu erreala kalkulatzeko, O-NOZeko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzako Kostuaren Kontrol eta Analisisako Zerbitzua zehatz samar kalkulatzeko ari da COVID-19 duen gaixo baten batez besteko gastua, eta gastu hori izanen da Nafarroako Ospitaleguneko ZIUko eta ospitaleratze arrunteko erreferentzia osasun zentro pribatuei fakturatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 22an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

## Galdera, ARS-CoV 2 detektatzeko egin diren PCR probei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, ARS-CoV 2 detektatzeko egin diren PCR probei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatzizko galdera aurkeztu du (20PES-00072), jakiteko zenbat pertsona ezberdini egin zaion

SARS-CoV 2 detektatzeko PCR proba eta pertsona horietatik zein den PCR positiboa eman dutenen portzentajea. Honako hau da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Ondoko taulan datu hauek agertzen dira: o-tsailetik maiatzaren 24ra bitartean SARS-CoV-2a detektatzeko PCR bat gutxienez egin zaien pertsonen kopurua, gutxienez PCR positibo bat izan duten pertsonen kopurua eta guttizkoaren barruan egiten duten portzentajea.

Datu orokorreaz gain, ingresatutako pertsonei, osasun-langileei eta zahar-etxeetako egoiliarrei buruzko datuak ere adierazten dira.

Ez dugu zahar-etxeetako langileak, etxean isolatuak edota bestelako funtsezko zerbitzuetan isolatuak bereizi ahal izateko informaziorik.

	PCRa egindako pertsonak, guztira	PCR positiboak	Positiboen %
PCR bat egin zaien pertsonak, guztira	35.856	5.094	% 14,2
Osasun-langileei egindako PCRak	8.165	563	% 6,90
Zahar-etxeetako pertsonei egindako PCRak	3.177	1.397	% 43,97
PCRa egindako ingresatuak	3.145	1.732	% 55,07

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña



## Galdera, Covid-19aren pandemian ZIUko gehieneko ahalmena edukitzeko egindako ekintzei eta gaixoak maneiatzeko protokoloei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Covid-19aren pandemian ZIUko gehieneko ahalmena edukitzeko egindako ekintzei eta gaixoak maneiatzeko protokoloei buruzkoa. Galdera 2020ko maiatzaren 12ko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2020ko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak 20PES-00070 idatzizko galdera aurkeztu du. Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

*“1. Osasun Departamentuak zer urrats egin ditu Covid-19aren pandemian ZIU-ahalmenik handiena edukitze aldera honako arlo hauei dagokienez: oheak atontzea, aireztapen mekaniko lagunduko sistemak, arnasgailuak nahiz beharrezkoa den bestelako osasun-materiala?”*

a. Juan Pedro Tirapu León jauna izendatzea ospitale publiko eta pribatu guztietako ZIUetako koordinatzaile exekutibo, Osasuneko kontseilariaren martxoaren 21eko 5/2020 Foru Aginduaren bidez.

b. Pandemiak sorturiko beharrezanean erantzuteko jartzea Nafarroako Unibertsitatea Klinikako eta San Miguel Klinikako ZIU postuak, Nafarroako Ospitalegunekoez, Reina Sofia ospitalekoetz eta García Orcoyen ospitalekoetz gain.

c. Nafarroan ZIUetan, ebakuntza-geletan, osasun-garraioan, ikerketa zentroetan eta abarretan erabilgarri dauden arnasgailuak inbentariatzea eta COVID-19ak eragindako pandemiatik eratorritako beharrezanetara bideratzea.

d. Berariazko materiala, arnasgailuak, infusio-ponpak, oheak, ECMO bat erostea merkatu desberdinetan, baliabideen arabera.

e. Zainketa intentsiboetako postu guztiak langilez eta materialez hornitzea, bikoiztu zitezkeen boxak bikoiztea eta premiazko egoera berezietarako gordetako boxak irekitzea.

f. ZIUetatik kanpoko guneak prestatzea gaixo kritikoak artatzeko: Anestesia Ondoko Konortetarako Unitateak, endoskopia-gelak, kirurgia anbulatorio larriko gelak, larrialdirako boxak, zainketa ertainetako postuak.

*2. Osasun Departamentuak zer urrats egin ditu COVID-19aren pandemian ZIU-ahalmenik handiena edukitze aldera, gaixo kritikoak maneiatzeko entrenatutako langileei dagokienez?*

a. ZIU-langileei kontratuak luzatzea.

b. ZIU-langileen txandak berrantolatzea.

c. Zainketa kritikoetarako zerranda berezietatik langileak kontratatzea.

d. Gaixo kritikoan zainketara bideratzea anestesia eta ebakuntza-geletako langileak, bai eta arnasa hartzeko laguntza eta zainketa bereziak behar dituzten gaixoak artatzen esperientzia duten beste zerbitzu eta unitateetakoak ere.

e. Berariazko langileen prestakuntza, ZIUtik kanpo dauden gaixo kritikoan kokagune berriak indartzeko.

f. Nafarroako Unibertsitatea Klinikako eta San Miguel Klinikako ZIUekiko koordinazioa.

*3. COVID-19a duten gaixoak ZIUan maneiatzeko zer protokolo erabili dira, eta zer dokumentu dago, dokumenturik badago, COVID-19aren pandemia dela-eta Nafarroako ZIUak koordinatzeari buruz?*

Honekin batera doa eskatutako dokumentazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2020ko maiatzaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduña

(Oharra: Aipatu dokumentazioa Zerbitzu Orokorretako bulegoan dago eskuragarri).



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Kontuen Ganberaren informazioaren segurtasunari buruzko politika.**

### **AURKIBIDEA**

- 1 Onestea eta indarrean sartzea.
- 2 Sarrera.
  - 2.1 Prebentzioa.
  - 2.2 Detekzioa.
  - 2.3 Erantzuna.
- 3 Norainokoa.
  - 3.1 Norainokoa, pertsoneri dagokienez.
  - 3.2 Norainokoa, esparru objektiboari dagokionez.
- 4 Helburua eta xedeak.
- 5 Arau-esparrua.
- 6 Segurtasunaren antolamendua.
  - 6.1 Informazioaren Segurtasunerako Bartzordea.
  - 6.2 Rolak. Eginkizunak eta ardurak.
    - 6.2.1 Informazio segurtasunaren arduraduna.
    - 6.2.2 Sistemaren arduraduna.
    - 6.2.3 Sistemaren segurtasunaren administratzailea.
    - 6.2.4 Datu-babeserako delegatua.
  - 6.3 Informazio segurtasunari buruzko politika.
  - 6.4 Gatazkak ebaztea.
- 7 Izaera pertsonaleko datuak.
- 8 Arriskuen kudeaketa.
- 9 Segurtasun politikaren garapena.
- 10 Segurtasun-printzipio orokorrak.
- 11 Langileriaren betebeharrak.
- 12 Hirugarrenetikokoak.
- 13 Eranskina. Glosategia.

### **1 ONESTEA ETA INDARREAN SARTZEA**

Agiri hau 2020ko ekainaren 24an onetsi zen Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpen baten bidez, eta indarra hartuko du Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

### **2 SARRERA**

Nafarroako Kontuen Ganberak, Nafarroako sektore publikoaren entitate fiskalizatzailea den aldetik, bere balioen artean ezartzen ditu gaitasun profesionala, gaitasun profesionaltzat ulerturik jarduera profesionalak gauzatzeko beharrezkoak diren ezaupideak eskuratu eta eguneratzeko gaitasuna, eta eraginkortasuna, zeinak ahalbidetzen baitu baliabideak hobeto esleitu eta erabiltzea.

Helburu horiek betetzeko, Nafarroako Kontuen Ganberak behar-beharrezkoak ditu IKT (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) sistemak. Ondorioz, sistema horiek arretaz administratu behar dira, eta horiek babesteko neurri egokiak hartu, tratatzen den informazioaren edo ematen diren zerbitzuen eskuragarritasunean, osotasunean edo konfidentziasunean eragina izan dezaketen nahi gabeko kalteen edo nahita eragindakoen aurrean.

Kontuen Ganberak beti hartu du bere gain IKTak era seguruan erabiltzen direla bermatzeko konpromisoa. Kontuen Ganberako lehendakariak 2008ko abenduaren 23an emandako ebazpenaren bidez onetsi zen segurtasun dokumentua, zeinak neurri tekniko eta antolamenduzkoak jasotzen baititu, derrigorrez bete behar dituztenak datu pertsonalak jasotzen dituzten Nafarroako Kontuen Ganberaren ardurapeko informazio-sistemetara sarbidea duten langileek. Aipatu dokumentua 2014ko irailean eguneratu zen.

2014an onetsitako segurtasun-politikak bat bazetozen ere indarrean dauden informazioaren segurtasunari buruzko printzipioekin, beharrezkoa

gertatzen da, iragandako denboragatik eta zenbait arau juridikoren berrikuspengatik, besteak beste Segurtasun Eskema Nazionala (SEN) onetsi zuen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua –urriaren 23ko 951/2015 Errege Dekretuaren bidez aldatua–, segurtasun arloko politikak teknologiaren eta arauen bilakaerari egokitzea.

Kontuen Ganberako lehendakariak 2015eko urriaren 5ean emandako ebazpenaren bidez onetsi eta arautu zen Nafarroako Kontuen Ganberaren egoitza elektronikoa, herritarrei eta administrazio publikoei erraztasunak emate aldera Kontuen Ganberarekin baliabide elektronikoen bidez komunikatzeko. Ganberaren egoitza elektronikoa argitaraturiko edukiak bat datoz Segurtasun Eskema Nazionalan eta Elkarreragingarritasun Eskema Nazionalan ezarritako segurtasun-eta elkarreragingarritasun-irizpideekin.

Segurtasun Eskema Nazionalaren xedea da, 40/2015 Legean aurreikusitakoarekin bat, baliabide elektronikoen erabilerari buruzko segurtasun politika ezartzea aipatu legearen eremuan, eta osagai ditu trataturiko informazioaren segurtasuna behar bezala ziurtatzen duten oinarriko printzipioak eta gutxieneko betekizunak. Segurtasun Eskema Nazionalak sektore publikoa du aplikazio-eremu, eta Kontuen Ganberan aplikatzen da maneiatutako informazioa eta emandako zerbitzuak babestuko dituzten segurtasun arloko antolamendu-neurriak eta neurri teknikoak ezartzeko xedez, erakunde honen Informazio Sistemak trataturiko datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna bermatuz.

Informazioaren segurtasunaren xedea da bermatzea bai informazioaren kalitatea (konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna eta aurreikusitako erabilerak) bai zerbitzu-emate jarraitua, prebentzio neurriak hartuz, eguneroko jarduna ikuskatuz eta gertatzen diren gorabeheren aurrean arin erreakzionatuz. Horrek esan nahi du bai organizazioak bai bere langileek aplikatu behar dituztela ondoko arauetan eskatzen diren gutxieneko segurtasun neurriak: urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua, Administrazio Elektronikoen esparruan Segurtasun Eskema Nazionala (aurrerantzean, SEN) arautzen duena, 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, zeinak pertsona fisikoen babesa arautzen baitu datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez, eta indarrik gabe uzten duena 95/46/CE zuzentaraua (aurrerantzean, DBEO), eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abend-

uaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.(aurrerantzean, DB eta EDBLO).

Entitatearen helburuetako bat da auditoretza informatikoak garatzea. Horien xedea da Nafarroako sektore publikoak kudeatutako informazioaren eta zerbitzuen segurtasuna aztertzea. Politika honek islatzen du –ezin zen bestela izan– Nafarroako Kontuen Ganberaren nahia, beharrezkoak diren kudeaketa-sistemak garatzekoa, jomugatzat harturik bere informazioaren eta zerbitzuen segurtasuna hobetzea eta arestian aipaturiko legeria betetzea.

Arestian aipaturiko eta segurtasun-sistema orori dagozkion esparruetan definituriko etengabeko hobekuntza-izaeraren ondorioz, beharrezkoa da zerbitzu-ematearena mailen jarraipen iraunkorra egitea, jakinarazitako ahulguneen jarraipena eta azterketa egitea eta gorabehera desberdinei eman beharreko erantzun eraginkorra prestatzea, ematen diren zerbitzuen iraunkortasuna bermatzeko.

Segurtasun-betekizunak eta finantzatze-premiak identifikatu behar dira, eta plangintzan, eskaintza-eskaeran eta IKT proiektuetarako lizitazio-pleguetan jaso behar dira.

Erakundeak prest egon behar du gorabeherak prebenitu eta detektatzeko, horien aurrean erreakzionatzeko eta horietatik onbidera itzultzeko, SENaren 7. artikuluekin bat.

## 2.1 PREBENTZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberak ekidin edo ahal den neurrian prebenitu behar du segurtasun-gorabeherak informazioa edo zerbitzuak kaltetzea. Horretarako, ezarri beharrekoak dira SENek zehazturiko gutxieneko segurtasun neurriak, bai eta mehatxu eta arriskuen ebaluazio baten bidez identifikaturiko zeinahi kontrol gehigarri ere.

Kontrol horiek eta langile guztien segurtasun-eginkizun eta -ardura guztiak argi eta garbi zehaztu eta dokumentaturik egon behar dira. Politika betetzen dela ziurtatzeko, organizazioak, izendatutako arduradunen bitartez, ondokoak egin behar ditu:

- IKT sistemetak baimena eman, haiek funtzionamenduan sartu aurretik.
- Segurtasuna aldizkakotasunez ebaluatu, errutinaz egindako konfigurazio-aldaketen ebaluazioak barne.

## 2.2 DETEKZIOA

Gorabeherak direla-eta zerbitzuak agudo endeka daitezkeenez, operazioa etengabe monitorizatu behar da, zerbitzu-ematearen mailetan akatsak detektatzeko eta horren arabera jokatzeke, SENeko 9. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Monitorizazioa bereziki muntaduna da SENeko 8. artikulua araberako defentsa-lerroak ezartzen direnean. Detekzio-, aztertze- eta jakinarazte-mekanismoak ezarri behar dira, arduradunei aldizkakotasunez iritsiko zaizkienak, normal gisa aurrez ezarritako parametroen desbideratze esanguratsu bat gertatzen den unean.

## 2.3 ERANTZUNA

Nafarroako Kontuen Ganberaren betebeharrak dira:

- Mekanismoak ezartzea segurtasun-gorabeherari eraginkorki erantzuteko.

- Harreman-gune bat izendatzea entitatearen zerbitzuetan edota Nafarroako Kontuen Ganberarekin zerikusia duten beste erakunde batzuetan detektatutako gorabeherari buruzko komunikazioetarako.

- Gorabeherarekin zerikusia duen informazioa trukatzeko protokoloak ezartzea. Horrek barne hartzen ditu komunikazioak, bi norabideetan, nazio-mailan aitortpena duten Larrialdiei Erantzuteko Ekipoekikoak: Iris-CERT, CCN-CERT eta abar.

## 3 NORAINOKOA

### 3.1 NORAINOKOA, PERTSONEI DAGOKIENEZ

Politika hau derrigorrez bete behar dute Nafarroako Kontuen Ganberako langile guztiek eta erakundearen informazio sistemetara (IS) sarbidea duten pertsona guztiek.

### 3.2 NORAINOKOA, ESPARRU OBJEKTIBOARI DAGOKIONEZ

Politika hau aplikatuko zaie informazio sistema osatzen duten IKT sistema guztiei, bai eta Nafarroako Kontuen Ganberaren informazio sistemekin zerikusia duten baliabide guztiei ere.

## 4 HELBURUA ETA XEDEAK

Nafarroako Kontuen Ganbera Nafarroako Parlamentu edo Gorteen menpeko organo tekniko da, Foru Komunitateko sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioa eta izaera

publikoa duten funtsak fiskalizatzen dituen, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraikiz.

Erakundearen helburuak hauexek dira:

- Funts publikoak kontrolatzea erakunde publikoen kontuei fidagarritasuna emateko eta zerbitzu publikoen ematea hobea izan dadin laguntzeko.

- Ganberaren fiskalizazio-lanei kalitate gorena ematea, funts publikoen kudeaketari dagokionez erakunde fiskalizatuei eta herritarrei bermea ematearren.

- Ganberak egiten duen lanaren berri ematea gizaritari. Funtsezkoa da herritarrek jakin dezaten funts publikoak nola kudeatzen diren eta horiek kontrolatzeko lanak nolako garrantzia duen, kudeaketa publikoaren hobekuntzari eta iruzurraren nahiz ustelkeriaren prebentzioari egiten dien ekarpenari begira.

IKTak beharrezko tresna dira, modu egokian erabili behar dena haren erabilerak dakartzan arriskuak minimizatzeke, informazioaren segurtasuna egokiro bermatuz. Horretarako beharrezkoak dira:

- ISen eskuragarritasuna eta haietan biltegi-ratutako datuena ziurtatzea (erabiltzaile baimenduek informazioarako eta horri loturiko aktiboetarako sarbidea dute, behar dutenean).

- ISetan biltegi-ratutako informazioaren osotasuna ziurtatzea (informazioa eta haren prozesatzerako metodoak zehatzak eta osoak dira).

- Datu delikatuaren konfidentzialtasuna zaintzea (baimenduta daudeneke baino ezin dute informazioa eskuratu).

- Lege, araudi eta estandar aplikagarriak betetzen direla ziurtatzea.

Nafarroako Kontuen Ganberak informazioaren segurtasunari dagozkion helburu hauek zerrendatzen ditu:

- Segurtasuna kudeatuz, erakundearen misioa eta helburu estrategikoak betetzen laguntzea.

- Informazioaren segurtasunaren balioa ezartzea erakunde osoan.

- Nafarroako Kontuen Ganberako pertsona guzti-guztiek beren eguneroko jardunean maneiatzen duten informazioa babesten lagundu dezatela, horretan oinarriturik ziurtatze aldera eraginkorra dela informazioaren segurtasunaren kudeaketa, eta aplikatu beharreko legeriak behartzen duenaren arabera.

- Informazioaren konfidentziasuna, osotasuna, eskuragarritasuna, benetakotasuna eta trazitzaibilitatea zaintzea, informazioaren segurtasunaren alorrean legezko eta/edo erregulazioko, araudiko edo bestelako baldintzak betetzen direla bermatzeko.

- Segurtasun-gorabeheren arriskua prebenitzeko eta minimizatzeko jarduerak integratuko dituen plan bat ezartzea, arriskua kudeatzeaz erakundeak ezarritako irizpideetan oinarrituta.

- Identifikatutako arriskuak kudeatzeko egin beharrekoak diren jarduketak egin ahal izateko behar diren baliabideak jartzea.

- Segurtasunaren kudeaketaren goiburu gisa etengabeko hobekuntzarako konpromisoa definitzea, informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema baten esparrua erabiliz.

- Bere gain hartzea informazioaren segurtasunaren eta datu pertsonalen babesaren alorrean kontzientziatu eta prestakuntza ematearen erantzukizuna, politika hori betetzen dela bermatzeko bide gisa.

- Informazioaren segurtasunarekin dugun konpromisoa alderdi interesdun guztienganaino hedatzea.

## 5 ARAU-ESPARRUA

Aplikatzekoak dira Espainiako eta Europako lege eta araudiak datu pertsonalen babesari, jabetza intelektualari eta tresna telematikoen erabilerari dagokienez. Politika hori honako lege eta errege-dekretu hauetan zehaztutako arau-esparruaren barruan kokatzen da:

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.

- 19/1984 Foru Legea, abenduaren 20koa, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzkoa.

- 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseilu Europarrarena, pertsona fisikoaren babesa ezartzen duena datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreaki dagokienez, eta indarrak gabe uzten duena 95/46/EE zuzentaraua.

- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

- 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikokoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena.

- 951/2015 Errege Dekretua, urriaren 23koa, zeinaren bidez aldatzen baita urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretua, Administrazioaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duena.

- 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

- 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

## 6 SEGURTASUNAREN ANTOLAMENDUA

Informazio sistemetak informazioaren segurtasunaren gaineko erantzukizuna organizazio osoarena da, eta postu edo organo bakoitzaren eginkizunen eta arduren arabera banatzen da.

Kontuen Ganberan, informazioaren segurtasunaren arduradun nagusia erakundearen lehendakaria da; esleituta dituen eskumenak egikaritzen, berak onesten ditu agiri honetan biltzen diren politika orokorrak.

### 6.1 INFORMAZIOAREN SEGURTASUNERAKO BATZORDEA

Batzorde hori da Kontuen Ganberan informazioaren segurtasuna kudeatzen duen organo nagusia. Bilkura arruntak sei hilabetearen behin eginen ditu, eta bilkura bereziak egin ahal izango ditu, segurtasun-arduradunak hala erabakita, honako kasu hauetan:

- Segurtasun-gorabehera larriak sortzen direnean, informazioaren segurtasuna edo datu pertsonalen babesa ukitzen ahal dutenak.

- Segurtasun arloko beharrezko berriak sortzen direnean, Informazioaren Segurtasunerako Batzordeko kideen parte hartzea eskatzen dutenak.

Informazioaren Segurtasunerako Batzordea baliozko moduan eratzeko, erabakiak hartzeari begira, kideen kopuruaren erdia eta bat gehiago behar dira, eta haien artean segurtasun-arduraduna egon behar da. Segurtasunerako Batzordeak bere erabakiak hartzen ditu boto-eskubidedun kide bertaratuen gehiengo soilarekin.

Informazioaren Segurtasunerako Batzordea Nafarroako Kontuen Ganberaren lehendakariaren menpean dago. Boto-eskubidedun kide hauek osatzen dute:

- Segurtasun-arduraduna.

- Sistemaren arduraduna.

- Ordezkarri bana Nafarroako Kontuen Ganberako arlo hauetatik:

- Auditoria.
- Informatika.
- Aholkularitza juridikoa.
- Administrazioa.
- Komunikazioa.
- Segurtasunaren administratzailea.

Arlo bakoitzeko arduradunak ezartzen du nor izanen den arloaren ordezkaria batzordean. Kasua bada, ezarri ahalko da pertsona bakar batek zenbait eginkizun bere gain hartzea Batzordean.

Segurtasun-arduradunak, bere irizpidez, zilegi izanen du dei egitea aurreko zerrendakoez bestelakoak diren Nafarroako Kontuen Ganberako langile gehiagori, Batzordearen egitekoan garrantzizkoak direnean.

Informazioaren Segurtasunerako Batzordearen arloan, segurtasun-arduradunak idazkari jardunen du. Honako eginkizun hauek ditu:

- Informazioaren Segurtasunerako Batzordearen bilkurak deitzea.
- Batzordearen bilkuretan aztertuko diren gaiak prestatzea, erabakiak hartu ahal izateko informazio puntuala emanez.
- Bilkuretako aktak egitea.
- Batzordearen erabakiak zuzenean edo modu delegatuan betearazteko ardura du.

Informazioaren Segurtasunerako Batzordeak Ganberako lehendakariari ematen dio berri. Dituen eginkizun nagusien artean honako hauek daude:

- Ganberako lehendakariaren eta entitateko arloen kezkei erantzutea.
- Ganberako lehendakariari aldi behin ematea informazio segurtasuneko egoeraren berri.
- Informazio Segurtasuna Kudeatzeko Sistemaren etengabeko hobekuntza sustatzea.
- Nafarroako Kontuen Ganberaren bilakaerarako estrategia prestatzea, informazioaren segurtasunari dagokionez.
- Informazioaren segurtasuna dela-eta arlo ezberdinek eginiko ahaleginak koordinatzea, bermatze aldera koherenteak direla, gaian erabakitako strategiaren ildoarekin bat doazela eta bikoiztasunik ez dagoela.

- Informazio segurtasunari buruzko politika prestatzea (eta aldi behin berrikustea), lehen-dakariak onets dezan.

- Informazio segurtasunari buruzko politika garatzeko IKT segurtasun-arauen gaineko araudia onestea eta informazio sistemetak prozedura operatiboak onestea.

- Administratzaileak, operadoreak eta erabiltzaileak informazio segurtasunaren ikuspegitik prestatu eta kalifikatzeko baldintzak taxutzea eta onestea.

- Nafarroako Kontuen Ganberak bere gain hartutako hondar-arrisku nagusiak monitorizatzea eta haiei begirako balizko jarduketak gomendatzea.

- Segurtasun-gorabeherak kudeatzeko prozesuaren jarduna monitorizatzea eta haiei begirako balizko jarduketak gomendatzea. Bereziki, segurtasun arlo desberdinen arteko koordinazioa zaintzea informazio-segurtasunari dagozkion gorabeheren kudeaketan.

- Aldizkako auditoriak sustatzea, egiaztatze aldera segurtasun arloan erakundeak dituen betebeharrak bete egiten direla.

- Nafarroako Kontuen Ganberaren informazio segurtasuna hobetzeko planak onestea. Bereziki, arlo desberdinetan egin daitezkeen planen arteko koordinazioa zaintzea.

- Segurtasun arloko jarduketak lehenestea, baliabideak mugatuta daudenean.

- Begiratzea informazio segurtasuna kontuan hartua izan dadin IKT proiektu guztietan, hasierako espezifikaziotik funtzionamenduan jarri arte. Bereziki, zerbitzu horizontalak sortzen eta erabiltzen direla zaintzea, bikoiztasunak murriztu eta IKT sistema guztien funtzionamendu homogeneoa lagunduko dutenak.

- Informazio segurtasunaren arloan organizazioko arduradunen edo arloen artean sor daitezkeen ardura-gatazkak ebaztea, eta erabakitzeko nahikoa aginpide ez duen kasuetan, kasua bere goikoei bidaltzea.

Informazioaren Segurtasunerako Batzordeak bere gain hartuko ditu informazio-arduradunaren eta zerbitzu-arduradunaren eginkizunak, Segurtasun Eskema Nazionala onesten duen urtarrilaren 8ko 3/2010 Errege Dekretuak definitzen dituen moduan; besteak beste, honako hauek:

- Maneiatzen den informazioaren segurtasun-beharrizanak ezartzea.



- Baloratzea, informazio mota bakoitzerako, nolako inpaktua izanen lukeen informazio segurtasuna ukituko lukeen gorabehera batek.

- Informazio mota bakoitzerako behar den segurtasun maila onestea edo aldatzea.

- Ematen den zerbitzuaren segurtasun baldintzak zehaztea.

- Baloratzea, zerbitzu bakoitzerako, nolako inpaktua izanen lukeen informazio segurtasuna ukituko lukeen gorabehera batek.

- Ematen diren zerbitzuetarako eskaturiko segurtasun maila onestea edo aldatzea.

- Informazio segurtasunaren gorabeheren berrikuspena eta jarraipena. Horretarako, behar diren txostenak eskatuko dizkio sistemaren arduradunari eta/edo segurtasunaren administratzaileari.

- Informazio segurtasunerako kontrolak ezartzeko hartutako neurrien jarraipena.

## 6.2 ROLAK. EGINKIZUNAK ETA ARDURAK

Politika honetan xehakatzen diren rolak, eginkizunak eta ardurak orokorrak dira. Segurtasuna eginkizun berezitzat jasotzen da, honako arduradun hauek izendatuta:

- Segurtasun-arduraduna.
- Sistemaren arduraduna.
- Segurtasunaren administratzailea.
- Datu-babeserako delegatua.

### 6.2.1 Informazio segurtasunaren arduraduna

Segurtasun arduradunak zehazten ditu informazioaren eta zerbitzuaren segurtasun baldintzak asetzeko erabakiak.

Informazio Segurtasunaren arduraduna Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusia izanen da.

Segurtasun arduradunak eginkizun hauek izanen ditu:

- Informazio sistemek maneiatutako informazioaren eta emandako zerbitzuen segurtasunari eustea, informazio segurtasunari buruzko politikarekin bat.

- Gainbegiratzea informazio segurtasunari buruzko politika, haren arauak, prozedurak eta sistemen segurtasun-konfigurazioa betetzen direla.

- Sistemaren arduradunarekin lankidetzan aholkua ematea informazioaren arduradunari eta zerbitzuaren arduradunari aginduzkoak diren arrisku-analisiak egiteaz, eta arriskua kudeatzeko prozesua berrikustea. Urtero txosten bat igorriko dio Informazioaren Segurtasunerako Batzordeari.

- Aplikagarritasunari buruzko deklarazioa sinatzea, non jasotzen baitira sistema baterako hautaturiko segurtasun neurriak.

- Informazioaren Segurtasunerako Batzordeari berri ematea informazio segurtasunaren arloan egindako jarduketaz, bai eta segurtasun gorabeheraz ere.

- Informazio segurtasunaren arloko prestakuntza eta kontzientziaketa sustatzea.

- Informazio sistemen katalogazioa onestea.

### 6.2.2 Sistemaren arduraduna

Sistemaren arduradunaren eginkizunak esleitzen zaizkio sistema informatikoetako goi teknikariari.

Sistemaren arduradunak eginkizun hauek izanen ditu:

- Informazio sistemaren segurtasuna garatzea, operatzea eta mantentzea haren bizi-ziklo osoan zehar, haren espezifikazioak, instalazioa eta funtzionamendu egokiaren egiaztapena barne.

- Informazio sistemaren topologia eta kudeaketa-sistema definitzea, haren erabilerarako irizpideak eta hartan eskura dauden zerbitzuak ezarritak.

- Ziurtatzea segurtasun neurri espezifikoak egoki integratzen direla segurtasun esparru orokorrean.

- Behar diren neurriak ezartzea sistemaren segurtasuna haren bizi-ziklo osoan zehar bermatzeko, segurtasun-arduradunaren oharrei jarraikiz.

- Segurtasun arduradunari berri ematea.

- Halaber, Informazioaren Segurtasunerako Batzordeari jakinaraziko dizkio atzematen dituen arriskuak eta politika-urratzeak, kasuko neurri zuzentzaileak hartzeko.

- Bere ardurapeko sistemetan erabiltzaileei emandako baimenak kudeatzea, bai eta emandako pribilegioak ere, jardueraren monitorizazioa barne, segurtasun arduradunak gainbegiratuta.

- Sistemaren segurtasun egoera monitorizatzea, segurtasun arduradunak gainbegiratuta.

- Detektaturiko anomalien berri ematea informazioaren, zerbitzuaren eta segurtasunaren arduradunei.

- Segurtasun gorabeherak ikertzeko eta konpontzeko lankidetzan aritzea.

Sistemaren arduradunak, ardura mantentzen badu ere, delegatuak izendatzen ahalko ditu, eginkizun delegatuak beteko dituztenak informazio sistema operatu, mantendu, instalatu eta haren funtzionamendu egokia egiaztatzeari dagokienez.

### **6.2.3 Sistemaren segurtasunaren administratzailea**

Sistemaren arduradunaren menpean, sistemaren segurtasunaren administratzaile izatearen ardura esleitzen zaio informatika-sistemetak maila ertaineko teknikariari.

Sistemaren segurtasunaren arduradunak dituen eginkizunek honako hauek barne hartzen dituzte:

- Informazio sistemari aplikatzekoak zaizkion segurtasun-neurriak ezartzea, kudeatzea eta mantentzea.

- Informazio sistemaren segurtasun-mekanismo eta -zerbitzuen oinarri diren hardwarea eta softwarea kudeatzea, konfiguratzea eta eguneratzea, kasua bada.

- Sistemaren erabiltzaileei emandako baimeak eta pribilegioak kudeatzea, barne dela sisteman eginiko jarduera baimendutakoari lotzen zaio la monitorizatzea.

- Segurtasun prozedura operatiboak aplikatzea.

- Informazio sisteman indarrean dagoen konfigurazioaren aldaketak onestea.

- Ezarritako segurtasun kontrolak behar bezala betetzen direla ziurtatzea.

- Informazio sistema maneiatzeko onetsitako prozedurak aplikatu egiten direla ziurtatzea.

- Hardware- eta software-instalazioak, haien aldaketak eta hobekuntzak ikuskatzea, halatan ziurtatzearen segurtasuna arriskuan ez dagoela, eta haien beharrezkoak diren baimenetara egokitzen direla une oro.

- Segurtasunaren eta sistemaren arduradunei segurtasunarekin zerikusia duen edozein anomalia, konpromiso edo zaurgarritasunen berri ematea.

- Lankidetzan aritzea segurtasun gorabeherak ikertzeko eta konpontzeko, detektatzen diren etik konpontzen diren arte.

- Sistemaren segurtasun egoera monitorizatzea, aztertuz sisteman instalaturiko auditoretza teknikoko mekanismoek eta segurtasun-ger-takarien kudeaketarako tresnak emandako informazioa.

- Ekipamendu guztia baimenari lotzen zaio la gainbegiratzea.

- Sistemaren administratzaileen jarduerak gainbegiratzea: jarduketak eta ezarritako segurtasun-prozeduren aplikazioa.

- Gainbegiratzea sistemaren erabiltzaileen jarduketak bat datozela emandako baimenekin.

### **6.2.4 Datu-babeserako delegatua**

Datu-babeserako delegatua lehendakariaren ebazpenez izendatzen da. Datu-babeserako ordezkariaren eginkizunak dira DPBEEko 39. artikuluan biltzen direnak; besteak beste, honako hauek:

- Erakundeari eta haren enplegatuei informazioa eta aholkua ematea datu-babesari buruzko legediaren arloko betebeharreri dagokienez.

- Gainbegiratzea datu-babesari buruzko legediak ezarritakoa betetzen dela, barne harturik erantzukizun-esleipena, tratamendu-zereginetan parte hartzen duten langileen kontzientziario eta prestakuntza eta kasuko auditoriak.

- Datu-babesaren alorreko inpaktu-ebaluazioari buruz eskatzen zaion aholkularitza eskaintzea eta haren aplikazioa gainbegiratzea, DBEoko 35. artikuluari jarraituz.

- Kontroleko agintaritzarekin lankidetzan eta haren kontakurako puntu gisa jardutea.

### **6.3 INFORMAZIO SEGURTASUNARI BURUZKO POLITIKA**

Informazioaren Segurtasunerako Batzordearen egitekoa da politika hori urtero aztertzea eta hori berrikusteko edo mantentzeko proposamena egitea. Aipatu politika ezagutarazi egingen da, ukitutako alde guztiak horren jakinaren gainean egon daitezten.

### **6.4 GATAZKAK EBAZTEA**

Informazioaren segurtasunari dagokionez gatazkarik gertatuz gero, halakoak ebaztearen



eginkizuna Informazioaren Segurtasunerako Batzordearena izanen da.

Baldin erabakitzeke aginpide nahikorik ez badu, gatazka Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariarengana igoaraziko du, hark ebatz dezan.

## 7 IZAERA PERTSONALEKO DATUAK

Nafarroako Kontuen Ganberak batzuetan izaera pertsonaleko datuak tratatzen ditu. Tratamendu-jardueren erregistroa jasotzen da Datu Pertsonalen Segurtasunerako Arauen Agirian, eta haien inbentarioa entitatearen web orrian argitaratuta dago, gardentasun arloaren barruan agertzen den datu-babeseko orrian.

Nafarroako Kontuen Ganberako informazio-sistema guztiak egokituko dira datu pertsonalen izaerarako eta xederako araudiak eskatutako segurtasun neurrietara, Datu Pertsonalen Segurtasunerako Arauen Agirian biltzen diren horietara.

Politika horietan aurreikusten den segurtasun araudiarekin gatazkarik egonez gero, gailenduko da datu pertsonalen babesari begira eskaeramaila handienekoa den araua.

Entitateak doikuntza-prozesu bat burutu du DBEO eta DBLO-EDBko baldintzetara egokitzeko. Halaber, datu-babeserako delegatu bat izendatu du, harremanetarako helbide hau duena: [dpd.camaracomptos@navarra.es](mailto:dpd.camaracomptos@navarra.es).

## 8 ARRISKUEN KUDEAKETA

Politika honi loturiko sistema guztietarako, arrisku-analisi bat egin behar da, dituzten mehatxu eta arrisku guztiak ebaluatuz. Analisi hori errepikatuko da:

- Erregularki, urtean behin gutxienez.
- Maneiaturako informazioa aldatzen denean.
- Emandako zerbitzuak aldatzen direnean.

– Segurtasun-gorabehera larriren bat gertatzen denean.

– Zaurgarritasun larrien berri ematen denean.

Arrisku-analisiak harmonizatzeko, Informazioaren Segurtasunerako Batzordeak erreferentzia-balorazio bat ezarri behar du maneiaturako informazio mota diferenteetarako eta emandako zerbitzu diferenteetarako.

Informazioaren Segurtasunerako Batzordeak dinamizatu behar du sistema desberdinen segurtasun-premiei erantzuteko baliabide-eskuragarritasuna.

## 9 SEGURTASUN POLITIKAREN GARAPENA

Politika hau garatu behar da alderdi zehatzei aurre eginen dieten segurtasun-arau eta -prozeduren bitartez. Segurtasun-araudia eskuragarri egonen da organizazioaren informazio-sistemarako sarbidea izanik haren jakinaren gainean egoteko beharra daukaten langileentzat eta, batez ere, informazio- eta komunikazio-sistemak Nafarroako Kontuen Ganberaren datu-sareko baliabide baten bidez erabiltzen, maneiitzen edo administratzen dituztenentzat.

Informazioaren segurtasunaren alorrean ezartzen den arau-esparrua zenbait mailatan egituratuta dago, politika honetatik abiatuta:

- Kasuko informazioa eta zerbitzua babesteko zer urrats egin behar den zehazten duten segurtasun-arauak. Segurtasun-arau guztien multzoak barne hartu behar du organizazioaren informazio-aktibo guztien babesa.
- Segurtasun-prozedurak, zeinetan deskribatzen baita nola gauzatu behar den segurtasun-arauetan zehazturiko babesa.
- Jarraibide teknikoak, IKTen alorrean ezarri beharreko neurri teknikoak erregulatzen dituztenak.

Honako taula honetan jasota ageri dira dokumentazioarekin zerikusia duten ardurak:

Dokumentua	Garapen-arduraduna	Euskarri-langileak	Onespen-arduraduna
Segurtasun-arauak	Segurtasun-arduraduna	Sistemaren arduraduna Segurtasunaren administratzailea Datu-babeserako delegatua	Informazioaren Segurtasunerako Batzordea
Segurtasun-prozedurak	Sistemaren arduraduna	Segurtasunaren administratzailea	Informazioaren Segurtasunerako Batzordea
Jarraibide teknikoak.	Segurtasunaren administratzailea	-	Sistemaren arduraduna

Dokumentazio honen sailkapena Nafarroako Kontuen Ganberaren informazio-aktiboetarako orokorki ezarritako irizpideei dago lotuta. Arau orokor gisa, dokumentazio horrek organizazio guztiarentzat egon behar du eskuragarri.

Dokumentazio hori aldian-aldian berrikusi behar da, eta eguneratu, eragin diezaioketen muntazko aldaketak gertatzen direnean.

## 10 SEGURTASUN-PRINTZIPIO OROKORRAK

Nafarroako Kontuen Ganberak informazioaren segurtasunaren alorrean egindako urratsak honako oinarritzko printzipio hauei egokituko zaizkie, SENeko 5. artikulua xedatuaren arabera:

- Segurtasun integrala. Segurtasuna kudeatu behar da informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema baten bidez, halakoa non modu integralean aintzat hartuko baititu sistemarekin zerikusia duten elementu tekniko, giza elementu, elementu material eta organizazio-elementu guztiak. Sistema hori ezartzeko, beharrezkoa da entitateko langileak kontzientziaztea, halako moldez non ez ezjakintasuna, ez antolaketarik eta koordinaziorik eza, ez eta jarraibide desegokiak ere, ez baitira arrisku-iturri izanen segurtasunarentzat.

- Arriskueta oinarrituriko segurtasun-kudeaketa. Segurtasuna oinarritu behar da arrisku-analisi batean, zeinak zehaztuko baitu zein diren Nafarroako Kontuen Ganberaren informazioaren segurtasunerako mehatxu nagusiak. Horretarako erabili behar dira metodologia errekonozitu bat eta entitateak berak ezarritako irizpideak, arriskua aztertu eta kudeatu aurretiko jardun gisa.

- Prebentzioa, erreakzioa eta berreskurapena. Segurtasunak barne hartu behar ditu beharrezkoak diren alderdi hauek: prebentzioa, detekzioa, erantzuna eta berreskurapena, "2. Sarrera" kapituluaren ezarri bezala. Horretarako, Nafarroako Kontuen Ganberak segurtasun neurriak ezarri behar ditu, helburu dutenak mehatxuak gauzatzearen arriskua ekiditea edo apaltzea, eta gerta litezkeen segurtasun-gorabeherei behar bezala buru egitea.

- Defentsa-lerroak. Segurtasunak geruza aniztetan oinarrituta behar du egon, eta integratu behar dituen neurriak antolaketazkoak, fisikoak eta logikoak izanen dira.

- Aldizkako berrebaluazioa. Segurtasuna oinarritu behar da informazio-segurtasuna kudeatzeko sistemaren eta horren ondoriozko segurtasun-neurrien mantentze eta berrikuspenean.

- Funtzio berezitua. Segurtasuna oinarritzen da segurtasun-zereginen berariazko definizioan, politika honetako "6. (...) (r) en antolaketa" puntuan ezarritakoaren arabera.

Horrez gain, honako segurtasun-printzipio orokor hauek ezartzen dira:

- Nafarroako Kontuen Ganberaren informazioa eta zerbitzuak behar bezala babestu behar dira, haien balioaren eta kritikotasunaren arabera. Beharrezkoak diren babes-neurriak zehazteko, oinarri gisa hartuko da aktibo horiek zeren arrisku-pean dauden, arrisku horren ebaluazioa.

- Halaber ziurtatu behar da informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna, eskuragarritasuna, benetakotasuna eta trazabilitatea, bai eta eskainitako zerbitzuekin zerikusia duten informazio-sistemena ere, horretarako erabiliz SENean ezarritako kudeatze-esparrua.

- Edozein erabiltzailek Nafarroako Kontuen Ganberaren informazioa eskuratu ahal izateko beharrezkoa da baimena, eta haren segurtasun-pribilegioak esleituko dira kontuan harturik aktibo horren premia-kotasuna hark bere zereginak egin ahal izateari begira. Ez zaio eskuratzeko-baimenik eman behar esleitzen ez zaion informaziorako (gutxienezko pribilegioaren printzipioa).

- Nafarroako Kontuen Ganberako langileek eta erakundearentzat kontratu bat tarteko dela lan egiten duen beste edozein langilek bakar-bakarrik izan behar dute modua beren eginkizunak betetzeko zorrozki beharrezkoa den informazioa eskuratzeko, eta informazio hori erabili behar dute Nafarroako Kontuen Ganberarentzat betetzen dituzten eginkizun operatibo ezberdinak betetzeko beste ezertarako ez. Ezarritakoez bestelakoak diren helburuetarako gauzaturiko eskuratzeko edo erabiltzeko oro politika honen urraketatzat joko da.

- Nafarroako Kontuen Ganbera behartuta dago indarreko espainiar nahiz europar lege eta erregelamenduek ezarritako segurtasun-baldintzak betetzera.

- Nafarroako Kontuen Ganbera behartuta dago bere langileak kontzientziaztera esku artean darabilten eta prozesatzen duten informazioaren segurtasuna bermatzeko bere jardueren eta zerbitzuen funtzionamenduari begira daukan garrantziaz, eta haiei prestakuntza ematera gai horretan.

- Informazio-segurtasunari buruzko politika ezagutarazi beharrezkoa da, eta eskueran eduki behar dute kasuan-kasuan erabakiko diren langile eta interesdun guztiek.

- Nafarroako Kontuen Ganberan, informazioaren segurtasuna zehaztu behar da honako gutxieneko baldintzen arabera, SENeko 11. artikulua ezartzen duenez:

- Segurtasun-prozesua etengabeko hobekuntzaren bitartez antolatua eta ezarrita egotea, informazio-segurtasunaren alorreko zereginak eta erantzukizunak zehaztuta egotea, eta Informazioaren Segurtasunerako Batzorde baten ezarpena.

- Arriskuen analisia eta kudeaketa, nazioartean errekonozitua den metodologia bat erabiltzearen eta organizazioari suertatzen zaizkion arriskuak eta abaguneak aldizka berrikustearen bitartezkoa.

- Langileriaren kudeaketa, zehaztuz organizazioko langileen kudeaketari eta haien hautaketari loturiko segurtasun-arauak eta segurtasun-araudia urratzearen ondoriozko zehapen-prozedura, bai eta haien jakinaraziz ere informazio-sistemen erabilerari buruzko arauak eta informazio-segurtasunaren aferan dauzkaten erantzukizunak.

- Profesionaltasuna, langileen prestakuntzaren eta kontzientziazioaren bidez eta hornitze-profesionalen hautaketa egokirako arauak jarraituz.

- Informazio-eskuratzeen baimentze eta kontrolatzea, ezarriak eskuratzeen gaineko kontrolerako segurtasun-arauak eta -neurriak eta erabiltzaileen altak, aldaketak eta bajak egiteko prozedurak, ziurtatuz haietako bakoitzak identifikatzaile bakarra duela.

- Instalazioak babestea, segurtasun-arauak ezarritako datu-prozesuko zentroetan informazio-sistemak instalatzeari buruz, behar bezalako segurtasun fisikoarekin eta ekipoentzako segurtasunarekin egin dadin instalatze hori.

- Produktu-erosketa egin dadila informazio-sistemen erosketari buruzko segurtasun-arauak jarraituz, kasuan-kasuan beharrezkoak diren ziurtatze-prozesuak aintzat harturik.

- Segurtasun-lehenespena: halatan, segurtasun-arauak pribilegio minimoen eta segurtasun-lehenespenaren printzipioak jasotzen dituzte.

- Sistema-osotasuna eta sistemaren eguneratzea, segurtasun-arauen bitartezkoa, non jasoko baita sistema berri baten abiarazpena baimendu beharra eta sistemen aldizkako eguneratzea.

- Biltegiratutako eta iraganbideko informazioa babestea segurtasun-arauak eta -neurrien bitartez, zeinek eraenduko baitute gailu mugikorren, eramangarrien, USB memorien eta abarren maneia.

Halaber, paper-euskarriko informazioa babesteko beharrezkoak diren segurtasun-neurriak hartuko dira.

- Bestelako informazio-sistema elkarkonektatu batzuei begirako prebentzioa, perimetro-babeseko sistemak instalatzearen eta loturiko segurtasun-arauak ezartzearen bitartezkoa.

- Jarduera-erregistroa, informazio-sistemaren erabiltzaile eta administratzaileen jarduna monitorizatu beharri buruzko arauak ezarritik eta egikaritzea.

- Segurtasun-gorabeherak. Horiek jakinarazi eta kudeatzeko prozedura bat ezarriko da, eta aldizkako berrikuspenak eginen dira, ikaste-xedeetarako.

- Jardueraren jarraitutasuna, prozedura bat ezarritik, ematen den zerbitzuari eragin liezaioketen segurtasun-gorabeherari erantzuteko.

- Segurtasun-prozesuaren etengabeko hobekuntza, sistemaren aldizkako berrikuspenaren eta informazio-segurtasunari buruzko auditoretzen bitartezkoa.

- Segurtasun Eskema Nazionalen ezarritako segurtasun-baldintzak betetzen direla egiaztatze beharrezkoak diren auditoretzak egin behar dira.

Nafarroako Kontuen Ganberak erabilera-arauak garatu eta ezagutarazi behar ditu, erabiltzaileek eta kanpoko langileek entitatearen informazio-sistematarako sarbidea gauzatzeari buruzkoak.

## 11 LANGILERIAREN BETEBEHARRAK

Nafarroako Kontuen Ganbera osatzen duten pertsona guztiak behartuta daude informazioaren segurtasunari buruzko politika hau ezagutzera eta betetzera, bai eta horretatik abiatuz garaturiko segurtasun-araudia ere. Informazioaren Segurtasunerako Batzordearen erantzukizuna da informazioa pertsona edo zerbitzu ukituenganaino iristeko beharrezkoak diren bitartekoak jartzea.

Halaber, Nafarroako Kontuen Ganberaren informazio-sistemarako sarbidea duten erabiltzaileak behartuta daude sistema horien erabilerari buruzko organizazioak ezarri behar dituen arautan ezarrita dagoena betetzera.

Kontzientziazio iraunkorrerako ekintzetarako programa bat ezarri behar da, Ganberako kide guztiak artatzeko; batez ere, sartu berriak direnak.

IKT sistemen erabilera, operazio edo administrazioan erantzukizuna duten pertsonen sistemen

maneu segururako prestakuntza jaso behar dute, beren lana egin ahal izateko horren beharra duten heinean. Erantzukizun bat nork bere gain hartu aurretik aginduzkoa izan behar da prestakuntza, berdin delarik zein den kasua: lehenbizikoz esleituriko lanpostu bat izatea, lanpostu-aldaketa bat egin izana edo lanpostu beraren erantzukizunen aldaketa batengatik gertatu izana.

## 12 HIRUGARRENEKIKOAK

Nafarroako Kontuen Ganberak beste erakunde batzuei zerbitzu ematen dienean edo haien informazioa maneiatzen duenean, beharrezkoa da haiei berri ematea informazio-segurtasunari buruzko politika honetaz, Informazio-segurtasunaren Batzorde ezberdinen artean berri emateko eta koordinatzeko bideak ezartzea eta segurtasun-gorabeheren aurrean erreakzionatzeko jarduera-prozedurak ezartzea.

Nafarroako Kontuen Ganberak hirugarrenen zerbitzuak erabiltzen dituen edo hirugarrenen informazioa lagatzen dienean, beharrezkoa izanen da hirugarren horiei exigitzea informazioaren segurtasunari buruzko politika hau bete dezaten, bai eta zerbitzu edo informazio horiei dagokien segurtasun-araudia ere. Hirugarren horrek aipatu araudian ezartzen diren betebeharrak bete beharko ditu, eta zilegi izanen du bere prozedura operatibo propioak garatzea horretarako. Beharrezkoa da gorabeheren berri eman eta haiek ebazteko prozedura berariazkoak ezartzea. Hirugarren batek ezinezko duenean aurreko lerrokadetan definituriko politikaren parteren bat betetzea, Segurtasuneko Arduradunari txosten bat eskatuko zaio, non zehaztuko baita zer arrisku hartzen diren eta horiek nola tratatu. Beharrezkoa izanen da txosten hori informazioaren arduradunek eta ukituriko zerbitzuek onestea, aurrera segitu baino lehen.

## 13 ERANSKINA. GLOSATEGIA

Politika hau interpretatzeari begira, termino-glosategi hau erabiliko da, eta bere osagarri erabil daiteke SENeko IV. eranskinean ezarritakoa:

- **Aktiboa:** Informazio-sistema baten osagai edo funtzionaltasuna, nahita nahiz nahi gabe egindako eraso bat jasan dezakeena, organizazioarentzako ondorioak ekarriko dituena. Barne hartzen ditu: informazioa, datuak, zerbitzuak, aplikazioak (softwarea), ekipoak (hardwarea), komunikazioak, administrazio-baliabideak, baliabide fisikoak eta giza baliabideak.

- **Arrisku-analisia:** organizazioaren azterketa sistematiko eta metodologikoa, xede duena haren

aktiboen informazioaren segurtasunean eragin dezaketen arriskuak zehaztea.

- **Autentikotasuna:** Nolakotasun honen arabera, entitate bat da nor eta bere esanetan den hori, edo bermatzen du datuen jatorri den iturria.

- **Konfidentzialtasuna:** Informazioaren ezaugarria, informazio hori pertsona eta entitate baimenduei bakarrik eta denbora- eta forma-prozesu baimenduei jarraikiz helarazia izatean datzana.

- **Eskuragarritasuna:** Informazioaren eta informazio-sistemen ezaugarria, haiek une eta modu egokian irisgarriak eta erabilgarriak izatearena.

- **Segurtasun-gorabehera:** Zerbitzu baten funtzionamendu normaletik at agituriko jazoera, zeinak informazio-sistemen segurtasuna kaltezen duen edo kaltetu dezakeen, eskuragarritasun, konfidentzialtasun, osotasun, benetakotasun eta trazabilitateari dagokienez.

- **Informazioa:** Aplikatzen zaio biltegitutako, komunikatutako edo jasotako edozein ezaguerari, hala nola datuak eta iritziak, barne harturik zenbakiak, grafikoa eta narratiboak, ahozkoak izan nahiz edozein bitartekotan euskarriratuak.

- **Osotasuna:** Informazioaren ezaugarri hau informazioa osoa eta zehatza izatean datza.

- **Segurtasun neurriak:** Organizazioaren aktiboen segurtasunari eragin liezaioketen arriskuen aurrean aktibo horiek babestera bideratuta dauden kontrolak eta mekanismoak. Neurri horiek izan daitezke prebentziokoak, disuasiokoak, babesa ematekoak, detekzio eta erreakziokoak edo berreskurapenekoak.

- **Informazioaren segurtasuna kudeatzeko sistema (ISKS):** Arrisku-azterketan oinarrituriko kudeatze-sistema, ezartzen dena xede harturik informazioaren segurtasuna sortzea, gauzatzea, funtzionaraztea, gainbegiratzea, berrikustea, mantentzea eta hobetzea. Kudeatze-sistemak barne hartzen ditu antolaketa-egitura, politikak, planifikatze-jarduerak, erantzukizunak, praktikak, prozedurak, prozesuak eta baliabideak.

- **Informazio-sistema:** Termino orokor honek barne hartzen ditu entitatearen baliabide informatikoen babeserako aintzat hartu beharrekoak diren hardware- eta software-elementuak eta antolaketa- edo administrazio-alderdiak.

- **Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT):** Informazioa prozesatu, biltegitatu eta transmititzeko garatuak diren teknologien multzoa. Teknologia-multzo askotarikoa da, barne hartzen dituena ordenagailuak, telefonoak, komunikazio-

gailuak, zerbitzuak (posta elektronikoa, Internet) eta abar.

- Trazabilitatea: Nolakotasun honek ahalbidetzen du informazioaren edo informazio-tratamendurako sistema baten gain eginiko ekintza guztiak norbanako edo entitate bati zalantzagabeki egoztea.

---

## **Erabakia, zeinaren bidez uztaila gaitzen baita bilera urgenteak egiteko.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko uztailearen 20an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

- 1.** Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduren 72. artikularekin bat, aurtengo uztailean beharrezkoak diren egunak gaitzea, Mahaiak eta

Eledunen Batzarrak erabakitzen dituzten bilera urgenteak deitu ahal izateko.

- 2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko uztailearen 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias